

2017ko ABENDUAREN 19ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

2017ko abenduaren 19an, asteartearekin, arratseko zazpitan, Herriko Etxean, Christian DEVEZE jaunaren lehendakaritzapean, Herriko kontseilua bildu zen.

Hor zirenak: Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea, Henri Saint Jean jauna, Anne-Marie Pontacq anderea, axuantak, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Jean-Jacques Lassus jauna, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othateguy anderea, Maryannick Hirigoyen anderea, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Amaia Beyrie anderea, herriko kontseilariak.

Ezin etorriak: Bernadette Jougleux anderea, auzapeza, Pascale Lespade anderea, axuanta, Vincent Bru jauna, Vincent Goytino jauna, Peio Etchelecu jauna, Camille Jenvrin jauna, herriko kontseilariak.

Ahalordeak: Bernadette Jougleux andereak Christian Devèze jaunari, Pascale Lespade andereak Frédéric Bardin jaunari, Vincent Bru jaunak Eliane Noblia andereari, Vincent Goytino jaunak Argitxu Hirigoyen andereari, Peio Etchelecu jaunak Pascal Bourguet jaunari, Camille Jenvrin jaunak Didier Irastorza jaunari.

1 – Bilkurako idazkariaren izendapena.

Argitxu Hirigoyen anderea **aho batez** bilkurako idazkari bezala izendatua da.

2 – Aitzineko bilkurako bildumaren onarpena.

Deialdian adierazia zen bezala, Devèze jaunak oroitarazten du 2017ko abenduaren 11ko herriko kontseiluaren bilkurako bilduma eta gaurko bilduma 2018ko herriko kontseiluaren lehen bilkuran onartzeko aurkeztuak izanen direla. 2017ko abenduaren 11ko herriko kontseiluaren bilkurako bilduma bi idazkariei gaur helarazi zaiela zehazten du.

Gaur posible dena aitzineko aldian zergatik ezinezkoa ote zen galdatzen du Hiriart-Urruty andereak. Zergatik 2017ko azaroaren 27ko herriko kontseiluaren bilkurako bilduma ez zen berantago bozkarazi, jakinez oposizioko hautetsi taldeak grabaketa entzutea galdegin zuela? Horrek bere taldeari grabaketa entzuteko, eta, behar balitz, oharrak egiteko ahala emanen zion. Gaurkoan posible dena, aitzineko aldian ere egingarria zela ohartarazten du.

Aitzineko aldian ere gauza bera egiten ahal zela uste duela ihardesten dio Devèze jaunak.

Oposizioko taldea hobendun sentiarazteko errana izan den bezala, idazkariak egunean hamalau orenez lan egitea saihesteko balio izanen zuela ohartarazten du Hiriart-Urruty andereak. Izan ere, gehiengoan den hautetsi taldeak du manatzen, eta, hark ditu hamabost eguneko tartean bi Herriko kontseilu arras trinko antolatu.

3 - 2017-2018ko saneamendu programa: enpresen izendatzea.

Arrats honetan hor izateagatik bilkurako kide guziak eskertzen ditu Devèze jaunak. Izan ere, aitzineko bilkuran, biltzarrak 2017-2018ko saneamendu programa onartzea errefusatu zuen. Gaurko bilkuran, beraz, 2017-2018ko saneamendu programa berriz aztertu nahi luke.

Interpretazio arazorik ez izateko, Devèze jaunak aipagaiaren historia osoa berriz azaltzen du.

2017ko irailaren 11ko saioan, Herriko kontseiluak 2017-2018ko saneamendu programaren obralaritza kontratua HEA ikerketa bulegoarekin izenpetzea erabaki zuela oroitarazten du. Azken honek % 3.50eko ordainsari tasako eskaintza egin zuen, hau da, orotara, zergarik gabeko 24 500 euroko eskaintza.

Programaren fase honetan, lanak burutzeko, zergarik gabeko 700 000 euroko diru kopurua aurreikusia zen.

Obralaritza eginkizuna honako lanei buruz zuzendua zen:

- Ezpeletako bidean, Intermarché-ko biribilgunearen eta ehorzketa etxeko biribilgunearen artean, kanporatze hoditeriaren neurria egokitzea eta azkartzea (600 ml),
- ALKI kanporatze postuaren neurria egokitzea eta azkartzea (eta ponpen neurria egokitzea ere),
- Xerri-Karrikan eta geltokiko bidean isurtze profilaren ikertzea, hobetzea eta arraberritzea (400 ml),
- Toki-Ederreko biribilgunearen eta BEHEREKO PLAZAKO zubiaren artean, Geltokiko maldan, saneamendu sarearen arraberritzea,
- Ur-bidea errepideko ortzi isurgian den kontra-malda eta isurtze arazoa. Horren ikertzea, hobetzea eta arraberritzea aurreikusi behar dira (550 ml),
- Palazinborda eta Haltzuiako eremuetan, saneamendu sarearen neurrien egokitzearen eta arraberritzearen azterketa.

Zerrenda hau ez zen osoa eta lan horiendako aurreikusitako diru kopuruari buruzko erabakia aurreproiektu eta proiektu faseen ondotik baizik ez zen hartu behar, hau da, sarearen zahartasunaren arabera lan bakoitzaren guti gorabeherako kostua balioztatu ondotik.

Maryannick Hirigoyen anderea bilkura gelara sartzen da.

Terrenoak, telebistak eman ikuskatze emaitzak eta topografia-datuak aztertu ondoan, honako lanen egitaraua finkatua izan zen:

- Xerri-Karrikako (barnetik nagusiki) eta geltokiko bideko (trantxada baten bidez) hodiak arraberritzea. Zubiaren heineko sektorearen arraberritzea ere trantxada bidez egingen da,
- Toki-Ederreko biribilgunearen eta Behereko plazako zubiaren artean, Geltokiko maldako sarearen arraberritzea, trantxada baten bidez,
- Ur-bidea errepideko hoditeriaren hobetzea. Malda arazoari aurre egiteko, zati batean grabitateari kasu emanez hoditeria hobetuko da eta kanporatze postutik gorako bigarren zatian kanporatze hoditeria batek uren hartzea bermatuko du,
- HTPn bildutako etorkizuneko hirigintza eremuetara heltzeko, Nafarroako etorbideko sarearen hedatzea,

- Altzuiako auzoan, hoditeria barnetik eta txantxada bidez arraberritzea.

Azterketen ondotik, ALKI sektorea ez da egin beharreko lanen zerrendan ezarri, nahiz eta hor ere lanak egin behar diren. Delbarre etxe multzoko lanen parte bat ere ez da 2017ko saneamendu programaren 1. fasean ezarri. Euskal Hirigune Elkargoan saneamenduaren ardura dutenei bi kasu horiek seinalatuko dizkie Herriko Etxeak. Hori lantzen ari den saneamenduaren gida-eskemaz gain eginen du, horrek menturaz beste behar batzuk agertuko dituelarik. Anartean, bi lan horiek gibelatuak izan dira, eta, hola, saneamenduaren aurrekontu gehigarriak kanpoko mailegu batzuei dei egin gabe hesten ahal dira.

Obralariak estimatutako lanen diru kopurua zergarik gabeko 848 703.49 eurokoa da.

2017ko azaroaren 8an, asteazkenarekin, *Petites Affiches* aldizkari ofizialean, konkurrentziarako deialdi publikoaren agiria plazaratu zen. 2017ko azaroaren 9an, ostegunarekin, kontsulta-txostena eadministration64.fr webgunean plazaratu zen. 2017ko azaroaren 30ean, ostegunarekin, 12:00etan, enpresek beren proposamenak biltzen zituzten gutun-azalak eman zituzten.

2017ko azaroaren 30ean, ostegunarekin, 16:00etan, Prozedura Egokituen Merkatuen batzordea gutun-azalen irekitzeko bildu zen. 2017ko abenduaren 7an, ostegunarekin, 16:00etan, berriz, obralariaren azterketa txostenaren aurkezpenarendako bildu zen.

Kontratua hiru multzotan banatua zen. Kontratuaren multzo bakoitzeko, bizpahiru enpresek erantzun zuten.

1. multzoarentzat eskatutako zerbitzuen arabera, obralariaren aholkuak jarraituz, Prozedura Egokituen Merkatuen batzordeak hiru hautagaiekin negoziatzea onartu zuen. Hiru hautagaiek, berantenez, 2017ko abenduaren 11n, astelehenarekin, 10:00ak aitzin erantzun behar zuten. Hiruek epean erantzun zuten.

2017ko abenduaren 11n, astelehenean, 16:30etan, Prozedura Egokituen Merkatuen batzordea obralariarekin bildu zen berriz. Azken honek eskaintzen azterketa berria aurkeztu zuen.

Azterketa honen ondotik, kontsulta-araudian azaldutako hautagaitza irizpideei jarraikiz, Prozedura Egokituen Merkatuen batzordeak Herriko kontseiluari multzo bakoitzeko eskaintza merkeenak onartzea proposatu zion. Horren arabera, honakoak ziren hautatutako enpresak:

1. multzoa: Michel DUHALDE SARL enpresa, SOCATP enpresaren azpikontratatzarekin, zergarik gabeko 661 214,20 euroko eskaintzarekin.
2. multzoa: SUBTERRA SAS enpresa, zergarik gabeko 32 331,50 euroko eskaintzarekin.
3. multzoa: SEIHE SARL enpresa, zergarik gabeko 31 894 euroko aldaeren araberako eskaintzarekin.

Herriko kontseiluari honakoa galdegiten zaio:

- Gorago aipatutako enpresak deialdiaren irabazle eta lanen eramaile izendatzea,
- Auzapez anderea kontratuak eta dagozkien dokumentu guztiak izenpetzera baimentzea,
- Aturri-Garona Uraren Agentziari eta Errobiren Ibarraren Sindikatuari diru laguntzak galdetzea.

Bost hilabeteko epea kontuan harturik, lanen hasteko eguna zein den galdegiten du Bacardatz jaunak.

Programa hau gaur onartua baldin bada, atxikitako enprekin kontratua izenpetzeko hamaika eguneko epea errespetatu behar dela ihardesten dio Devèze jaunak. Gainera, izenpetzea 2017ko finantza aldian eginen litzatekela eta programaren abiatzea Euskal Hirigune Elkargoaren gerizan eginen litzatekela zehazten du.

Egin beharreko lan eta bereziki trantxada guziak ikusirik, Bacardatz jaunak lanak udako garaia baino lehen bururatuak izanen diren galdegiten du.

Herriko Etxeak egin gomendio eta eskaeretan lanak udako garaia baino lehen bururatzeko xedea adierazi duela ihardesten dio Devèze jaunak.

Herriko kontseiluaren azken bilkuran Bacardatz jaunak errepikatu galdera berriz aipatzen du Devèze jaunak. Izan ere, Bacardatz jaunak ez zuen arras ongi ulertu Alki postuarendako eta Delbarre etxe multzoarendako azterketa faseek gerora Euskal Hirigune Elkargoarentzat balio ote duten. Aurreiritzirik gabe, gai honi buruz galdezkatu obralariak EHE egindako azterketetan ez oinarritzea (nahiz eta gero hori osatu) zinez domaiia litzatekela erantzun dute, EHEk konkurrentzia hautatu eta ordaindu beharko lukeelako orduan, herriak jadanik obralari horiek hautatu eta pagatu dituelarik.

Herriko kontseiluaren azken bilkuraren ondotik, bere hautetsi taldeak txostena kontsultatu eta puntu zenbait konparatu dituela adierazten du Aïçaguerre andereak. Larunbat goizean jin zen, ez da gai horretan aditua ez eta ere obra publikoetan ingeniaria, baina, igurikatzen zituen erantzunak jaso ditu, txostena segitzeko ohar zenbait idatzi ahal izan ditu, eta, horregatik, biltzarra eskertzen du. Eskaera txostenean bildutako gutun baten bidez helarazi zuela gehitzen du. Ez daki bere ortografia akatsa hautetsi batek edo langile batek inguratu duen. Ez zuen gutuna berriz irakurri eta orduan barkamena galdegiten du, baldintzazkoan frantsesezko aditzek « s » hartzen dutela badaki.

Ohar hori nork egin duen ez dakiela ihardesten dio Devèze jaunak. Bere hautetsi taldea ez dela azaleko gaiex axolatzen gehitzen du, eta, ortografia hutsez oraindik gutiago. Aïçaguerre andereak gaia aipatzen duenez, Devèze jaunak kontsultatzeko eskubidea dagoela eta baliatu behar dela seinalatzen du. Baina, Aïçaguerre andereak egin dokumentuen azterketari buruz entzun dituenak kontuan harturik eta geroan ere gisa horretako azterketak izanen direla pentsatzen duenez, geroan, dokumentuak begiratzeko arauak hobeki errespetatu beharko direla zehazten du. Arau horien artean, eskubideak badira, baina, betebeharrak eta debekuak badira ere, hala nola fotokopien egitea edo telefono mugikor batekin argazkien hartzea.

Dokumentuak begiratzea posible da, baina, arau zehatz batzuk segituz, adibidez, horretarako pentsatu toki batean, eta ez Devèze jaunak oroitarazi berri duen baliabidea saihesteko ahala ematen duen beste leku batean.

Aïçaguerre andereak bilkura gelara igan zela ihardesten du, larunbat goizetan, harrera gunean, kontzentratzea ezinezkoa delako. Hirugarren pertsona bat hor egoteak ez zuen batere trabatuko.

Devèze jaunak ulertzen duela adierazten du. Baina, bere ustez, oposizioko taldeak azaleko gaiak inposatu nahi ditu, baina, horretarako, talde horrek testuek zehazten dituzten azaleko gaiak ere errespetatu behar lituzke. Kasu honetan, horren egiteko leku bat finkatua da. Beraz, han lan egin behar da eta jendeak ez ditu lekuak nahi duen bezala okupatu behar.

Hiriart-Urruty andereak zein testu aipatzen duen galdegiten dio.

Devèze jaunak ihardesten dio legeak fotokopiak edo argazkiak egitea debekatzen duela. Ikerketak toki horretan egin behar direla erraten delarik, ondoan baliabidea errespetatua

dela begira dezakeen langile bat izanki, arau hori zorrozki segitu behar da eta ez da beste gela batera joan behar. Formak eta moldeak errespetatzearen afera da. Gainera, Herriko kontseilua berriz horregatik biltzen da gaur. Gehiengoan den hautetsi taldeak ez du EHErekiko arriskurik hartu nahi, baina, jasotako informazioen arabera, ez da batere segur horregatik erabakia baliogabetuko duela.

Devèze jaunaren ustez, oposizioko taldea ez da gogo onez ari. Arrats honetan, talde honetako « ikuskatzaileen » azterketaren ondorioz, berez bere osotasunean aipatua izan zen gai bat berriz aztertzeko, oposizioak Herriko kontseiluko kide guziak berriz biltzera behartu ditu. Lehen bilduma oharrean Herriko kontseiluaren egunean diru mailako elementuak ekarriko zirela seinalatzearekin aski zen. Oposizioko taldea azaleko gaienez axolatzen baita, Devèze jaunak ere azaleko gaiak aipatuz ihardesten du.

Hiriart-Urruty andereak Devèze jaunari irakaspenik ez ematea aholkatzen dio; izan ere, oposizioko taldeari Herriko kontseiluaren grabaketa entzutea debekatu baitio. Oposizioko taldea ez da menturaz gogo onez ari, baina, gehiengoan den taldea ere ez.

Gehiengoan den taldeak ez duela neholaz ere Herriko kontseiluaren grabaketa entzutea debekatu ihardesten dio Devèze jaunak. Joan den aldian ere erran zuen, eta, gaur, berriz dio, fermuki. Zerbitzuek manera eraginkorragoan lan egiteko, Herriko kontseiluak grabaketen egitea onartu zuen. Herriko kontseiluaren bilkura gertatzen den eta bilkurako bilduma idatzia den arte horretan, ez da bilduma idazteko grabaketa erabiltzen duten zerbitzuen lanean muturra sartu behar. Aldiz, bilkurako bilduma idatzi ondoan, grabaketa entzuten ahal da. Ez da deus gordetzekorik, erranak erran. Bilkura batetik bestera, oharririk baldin bada eta ohar horiek oinarririk baldin badute, bilkurako bilduma kanbiatuko da. Bestalde, Herriko kontseiluak barne araudia berrikusiko du. Izan ere, ezin da hitzez hitzeko bilkurako bildumarik idatzi. Hori ez litzateke bilduma bat, beste zerbait litzateke. Bilduma bat idatzizko ariketa bat da. Ezin du ahoz errana izan denaren transkripzio zehatza izan. Orogen buru, bildumak eztabaida ezberdinen izpiritu orokorra erakutsi behar du.

Grabaketa linean ezarriz gero, arazoa konpon litekela adierazten du Hiriart-Urruty andereak.

Bilkurako bilduma onartu eta gero baizik ez daitekeela grabaketa linean ezarri ihardesten dio Devèze jaunak. Funtsezkoena bilkuretako bildumak adierazi diren ideiak islatzea da. Hautetsi denetik, hau da, 1995az geroztik, Herriko kontseiluko bilkuretako bilduma guziek erran direnak arras ongi islatu dituztela gehitzen du. Grabaketak linean ezartzearen erabakia Herriko kontseiluak hartu behar du.

Bilkuretako bildumak idazteko epeari dagokionez, Kanboko Herriko Etxea ahal urriekin ari dela eta beste hiriekin konparatuz gero berdintsu aritzen dela oroitarazten du Devèze jaunak. Ondorioz, jendea lan egiten utzi behar da.

Bilkurako bilduma ostiralean helarazi zitzaizela eta astelehenean Herriko kontseiluko bilkuran onartu behar zutela oroitarazten du Hiriart-Urruty andereak. Oposizioko taldeko lau hautetsiak larunbatean hor ez zirenez, ez daki hori nola posible izan zitekeen. Bilkurako bilduma jadanik idatzia zen, eta, halere, aitzineko asteazkenean grabaketaren entzutea ukatu zitzaion.

Devèze jaunak asteazken hartan dokumentua idatzia zenaren zalantzak ditu. Berrogei orrialdeko bildumaren irakurtzeari dagokionez, arreta berezirik merezi ez zuten aipagai anitz izanki, axola zitzaizkien aipagaiak irakur eta onar zitzaketan.

HTPri buruzko aipagaia inporta zitzaiela onartzen du Hiriart-Urruty andereak eta gai honi buruzko Herriko kontseilu oso bat egitea merezi zuela ohartarazten du. Orduan, bilkurako bildumak hogeit bat orrialde baizik ez zituen izanen.

Herriko kontseiluko bilkura hartan erabaki aldakorrak zergatik gehitu ote ziren jadanik esplikatu diola erraten dio Devèze jaunak.

Devèze jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

4 – Beste aipagaiak.

- Devèze jaunak Herriko kontseiluko kideei gaur egun karabanendako gunea den Muleniako lursailen erosteko agiriaren izenpetzearen berri ematen die. Herriko Etxeak agiria 2017ko abenduaren 18an, astelehenean izenpetu zuen.
- Eskolek eta aisialdi zentroak erabiltzeko, Herriko Etxeak autobus bat erosi du. Autobusa abenduaren 22an, ostiralean eskuratuko du.
- Herriarenak diren kanpoko desfibrilagailu automatizatuak non diren galdegiten du Hiriart-Urruty andereak.

Udan igerilekuan baño, ezker paretan beste bat, Zabalkin ere beste bat eta kiroldegian azken bat badirela ihardesten dio Irastorza jaunak. Tresna horiek eraikinen barnean direla gehitzen du.

Hiriart-Urruty andereak kanpoan ez izatea jenagarria dela pentsatzen du. Eraikin horiek hetsiak direlarik zer egin?

Jadanik desfibrilagailu anitz badirela ohartarazten du Devèze jaunak, eta, tresna horiek instalatu zirelarik, bereziki kiroldegikoaren kasuan, leku zehatz horietan ezartzea azkarki aholkatu zietela jakinarazten du.

- Herriko Etxeak karabanendako gunearen inguruan plantatu behar zuten enpresen proiektuari buruzko xehetasun gehiagorik ba ote duen galdegiten du Bacardatz jaunak.

Xehekiago aztertu beharreko aipagaien parte dela ihardesten dio Devèze jaunak. Hurrengo bilkuretan, xhekiago ihardesten entseatuko dela erraten dio.

Gai hau, orain, Euskal Hirigune Elkargoak kudeatzen duela gehitzen du Irastorza jaunak.

19:40etan, Devèze jaunak Herriko kontseiluaren bilkurari bururapena ematea erabakitzen du.